

2023KO URRIAREN 26AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Hogeita seia

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hogeita hiru.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko bostak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUAK: Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Mariola Paredes Pascual (EAJ-PNV)

Hasier Agirre Elkoroberezibar (BEASINGO EH BILDU)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA /

IU-ALIANZA VERDE).

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- AURREKO AKTA. 2023-09-28ko aktaren onespena.

Aipatutako aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da, berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ANTOLAKUNTZAKO BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- UDALA ETA GESMUNPAL, S.A.REN ARTEKO BEASINGO ZERGAK IKUSKATZEKO LAGUNTZA TEKNIKO-ZERBITZUA EMATEARI BURUZKO KONTRATUA: KONTRATUA LIKIDATZEA ETA FIDANTZA BUELTATZEA. 2017DVAV0010

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena, hots:

“AURREKARIAK

Kontutan izanda:

1.- Udalak, Gesmunpalen laguntzarekin C.A.F., SAr eta CETEST, SLri J.E.Z..eta E.I.O.Z.ri buruz egindako ikuskapen-prozeduraren ondorioz, lehenengoari dagokionez C.A.F.ek erreklamazioa aurkeztu zuen Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan eta bigarrenari dagokionez, bi enpresek Administrazioarekiko Auzien Epaitegira jo zuten.

2.- Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak erreklamaziogileari zati batean arrazoia emanez ebatzi zuen (alderdietako batek ere ez zuen errekurritu ebazpena), eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak Udalaren aurkako epaia eman zuen CETESTek aurkeztutako demandari dagokionez, eta Udalak apelazio-errekurtsoa aurkeztu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean.

3.- Udalak, C.A.F, SAK eta CETEST, SLk "C.A.F. 6. eremua"ri buruz sinatutako hitzarmenaren ondorioz, eten egin ziren abian ziren prozedura judizialak.

4.- Udalaren eta Gesmunpal, SAren arteko aipatutako kontratua amaitu ondoren, kontratua sinatzeko jarritako 6.000,00 euroko fidantza itzultzeko eskatu zuen enpresak.

5.- Udalak, C.A.F, SAK eta CETEST, SLk sinaturiko hitzarmena bete ondoren, alderdi sinatzaileek uko egin zieten aurkeztutako errekurtsoei.

6.- Prozedura judizialetan atzera egitearen irmotasuna deklaraturik, Alkateak, 2023ko uztailaren 18an, ebazpen-proposamen hau egin zuen:

- J.E.Z.ri dagokionez:

“Udalaren aldeko 5.550,25 euroko saldoa, 6.000 euroko fidantzatik deskontatzea proposatzen dena.” (txostenaren B.1.1 puntua)

- E.I.O.Z.ri dagokionez:

“Arrazoizkotzat jotzen da alderdi kontratugile bakoitzaren betebeharrak betetzat jotzea, eta bata besteari ezer ez zor izatea.”(txostenaren B.1.2 eta B.2 puntuak).

Gesmunpali 2023ko irailaren 5era arteko alegazioak aurkezteko epea eman zitzaion, baina alderdiak eskatuta, 2023ko irailaren 8ko ebazpen bidez 15 egunez luzatu zen alegazioak aurkezteko epea.

7.- 2023-09-26an Gesmunpalek ondorengo alegazioak aurkeztu zituen:

- *Jarritako auzi-errekurtsoen emaitza ezezaguna da, egintza judizialen atzera egitea ebazpena eman aurretik gauzatu baitzen, Udalaren eta ikuskatutako bi enpresen arteko hitzarmena Gesmunpalen parte-hartzerik gabe formalizatu zela kontuan hartuta.*
- *Hitzarmen horren arabera, "konpentsazio ekonomikoa" egin da hitzarmena sinatu duten alderdien artean, Gesmunpalen eta Beasaingo Udalaren arteko harreman juridikoa arautzen duen kontratu-esparrutik kanpo.*
- *Ikuskatutako enpresa bati ere likidazioen zenbatekoa EZ itzultzeak 167.358,88 €-ko kobratzeko eskubidea sortzen du Gesmunpalen alde, eta zenbateko horren % 50a ordaindu gabe dago oraindik.*
- *Hala ere, Gesmunpal SAK uko egiten dio kobratu gabeko % 50ari, betiere fidantzaren zenbateko osoa itzultzen bada.*

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Kontratuaren likidazioari eta fidantzaren itzulketari buruzko legeria aplikagarria:

- *Sektore Publiko-Kontratuaren urriaren 30eko 30/2007 Legea.*

II.- Aurkeztutako helegiteei dagokienez:

- Udalaren eta ikuskatutako enpresen arteko hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (2020ko ekainaren 4an) sinatu aurretik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian 8. puntuan jasotakoaren arabera.

- Helegileari arrazoia eman behar zaio, auzibideen emaitza ezezaguna denaren inguruan, baina badago aurrekari bat; izan ere, Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegiak Udalaren aurkako epaia eman zuen CETESTek E.I.O.Z.ri buruz aurkeztutako demandari dagokionez. 113/2019 epaiak baliogabetzat jo zuen CETESTen aurkako EIOZren ikuskapena zela-eta ikuskapen-prozedura, Gesmunpal S.A. zergak ikertu eta erregularizatzeko jarduerari datxezkion ahalak erabili zituelako, administrazio publikoko langileentzat gordeta egonik.

Horren aurretik, Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak ere C.A.F. erreklamatzailaren aldeko ebazpena eman zuen, nahiz eta ez izan bere osotasunean.

Udalak, hirigintza-arazo jakin batzuk konpontzeko, hitzarmen bat sinatu zuen ikuskatutako enpresekin. Hitzarmen horretan, abian zeuden prozedura judizialetan atzera egitea ere onartu zen, aipatutako epai administrazio eta judizialak kontuan hartuta.

Aurkeztutako helegiteekin jarraituz gero, honako hau gertatzeko arriskua zegoen:

- Judizialki enpresei E.I.O.Z. kontzeptuan ordaindutakoa itzultzeko agintzea eta, ondorioz, Gesmunpalek Udalari itzuli behar izatea E.I.O.Z.ren ikuskapenagatik kobratutako % 50a.

- Abokatuaren eta prokuradorearen gastu judizialak ordaintzen jarraitzea.

- Prozesuko kostuak ordaintzea, hala kondenatua izanez gero.

Horrekin guztiarekin, Gesmunpalek, hala eskatu duenez, kobratzeke dagoen 83.679,44 euroko zenbatekoari (BEZ barne) uko egiten dio, betiere jarritako fidantzaren zenbateko osoa itzultzen bazaio; eta Udalak uko egiten dio Gesmunpalen aldetik 5.550,25 € jasotzeari, eta fidantza osorik itzultzea onartzen du (6.000,00 €).

Aurrekariak eta oinarri juridikoak kontuan hartuta, Antolakuntza Batzordeak Gobernu Batzordeari egiten dio ondorengo

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehenik. Beasaingo Udalaren eta Gesmunpal, S.A.ren artean sinatutako Beasaingo zergak ikuskatzeko laguntza teknikoko zerbitzua emateko kontratua likidatutzat jotzea.

Bigarren. Gesmunpal S.A.ri 6.000,00 euroko fidantza itzultzea erabakitzea.

Hirugarren. Gesmunpal, S.A.U.ri akordio honen eta dagozkion helegiteen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- HERRITARREI ZUZENDUTAKO SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA GAUZATZEKO ZERBITZUA: KONTRATUA LUZATZEA. 2021PEBO0013

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena, hots:

“AURREKARIAK

I.- 2021-07-01. Gobernu Batzordearen erabakia ondorengo lizitazio prozedura eta plegu administratibo nahiz teknikoa onartzeari buruzkoa: *Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-programa bat gauzatzeko prozedura. Programa horren helburua desgaitasun intelektuala duten pertsonen garatzeko, prestatzeko eta parte hartzeko aukera ematea, leku komunitario eta ikusgarrietan.*

II.- 2021-10-26. Lizitazioa burutu ondoren, Alkateak behin betiko esleipen Ebazpena eman zuen, lizitatzailerak Kontratu Legearen 150. artikuluan aurreikusitako dokumentuak aurkeztu ondoren.

III.- 2021-10-29an Kontratu administratiboa sinatu zen. Egikaritze epea eta luzapenak ondorengoak: Bi urte eta beste bi urtez luzatzeko aukera.

IV.- Kontratua, 2023-10-28an amaituko da eta kontratuaren arduradunak, hau da, antolakuntza eta giza baliabideen azpi arloko arduradunak, 2023-10-06an kontratua luzatzeko aldeko txostena eman du, ezarritako helburuak behar bezala eta osorik bete direla adieraziz eta kontratua beste bi urtez luzatzea proposatzen du.

IV.- Kontuhartzaileak, 2023-10-10ko datarekin aldeko fiskalizazio txostena egiten du.

V.-. Bestalde Idazkaritzak 2023-10-11n txostena eman du adieraziz zilegi dela kontratua luzatzea beste bi urte betez.

OINARRI JURIDIKOAK

Azaroaren 8ko 9/2017 Legea Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duena, 29. artikulua.

Beraz, Antolakuntza batzordeak, kontuan izanik, luzapena, organo kontratatzaileak berariaz onartu behar duela, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 2021-10-29ean, Gureak Lanean, S.Arekin sinatutako kontratua (bi urteko egikaritze epea duena) eta 2023-10-28an amaitzen dena, beste bi urtez luzatzea.

Bigarren. Luzapenaren epea bi urtetakoa izatea, hau da, 2023-10-29tik 2025-10-28ra arte.

Hirugarren. Alkateari baimena ematea, kontratuaren luzapena sinatzeko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu), adierazi du aipatutako zerbitzua kontratatzearekin eta kontratuaren luzapenarekin ados dagoela, baina saiakera egin beharko litzatekeela, plantilan 50 pertsona edo gehiago daudenean Legeak ezartzen duena betetzeko, hau da: gutxienez % 2 desgaitasunen bat duten pertsona izatea.

Alkate andrea ados azaldu da proposatutakoarekin baina esan du zehaztu egin beharko litzatekeela “*desgaitasuna*” adimenekoa edo bestelakoa izan behar duen.

Esateko besterik ezean, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK

a.- OBRA ZIURTAGIRIAK: ANDRE MARI, 9 URBANIZAZIOKO ZOLADURA BERRITZEKO OBRAK. 2023PROB0005

Aho batez onartu da, “Andre Mari, 9 urbanizazioko zoladura berritzeko obrei” buruzko lehenengo obra-ziurtagiria, 37.038,06 €koa (BEZ barne).

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Kontuan izanda udalak egiten dituen inbertsioak plaza eta eremu publikoak txukun mantentzeko aztertu egin beharko litzateke herritarren aldetik erabiltzeko aukera izatea hainbat egitasmo egin ahal izateko, beti ere noski, bizilagunengan egitasmo horiek izango luketen afekzioa aztertu ondoren, ordutegia eta errespetu arauak ezarriz.”

Alkateak bat egin du proposatutakoarekin horrela izan beharko lukeelako baina esan du askotan zaila dela eremu horien erabilera anitza publikoa eta bizilagunen kexak ezkontzea.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

TAXIAK: TARIFAK

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (BEASAINGO EH BILDU), taxien tarifei buruzko informazioa eskatu du.

Idazkariak andreak Alkateak horrela eskatuta azalpen hauek eman ditu:

1.- “Elkarlan-akordioa” eta sinatzearen helburua.

2003ko maiatzean, “Elkarlan-akordioa” sinatu zen Goierriko 18 udaleko ordezkari eta Goierriko taxisten elkartearen artean. Fede publikoa emanez, GOIEKiko zuzendariak parte hartu zuen. Helburua: Udalerrri batean lizentzia duten ibilgailuek zerbitzua beste udalerrri batean emateko aukera izatea, zerbitzuan akatsak edo beharrak sortzen direnean, baina beti ere Goierri mailan.

2.- Tarifak eguneratzea: prozedura.

Dokumentu horren arabera (ikus 9. akordioa), tarifak berritzeko eskaera, tarifa berrien proposamenarekin batera, Goiekiri aurkeztuko zaizkio eta Goiekik egingo du bidezkoa den izapidetzea, Udaletan proposamena onetsia izan dadin.

Guzti honen berri aurreko urteetako (2019, 2021 eta 2022), tarifei buruzko espedienteetan azaltzen den Idazkaritzako txostenean eman zen.

Hori horrela izanik, Udalek GOIEKItik jasotzen zituzten tarifak eguneratzeko eskaria (AGITAXek proposatutakoaren arabera) eta Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren ziurtagiria GOIEKItik bidaltzen zen.

2021erako prezioak ez ziren eguneratu, AGITAXek horrela eskatu eta GOIEKik horrela esanda.

2022rako tarifak berrikusi egin ziren eta Udalbatza Osoak onartutako erabakia zuzenean Eusko Jaurlaritzara bidali zen, GOIEKik horrela eskatuta.

3.- Eskualdeko batzordea sortzeko konpromisoa.

Dokumentu hori sinatzen dutenek eskualdeko batzordea sortzeko konpromisoa hartu zuten (ikus10. akordioa), baina inoiz ez da eratu.

4.- 2005eko Foru Agindua.

Foru Aldundiak 2005-08-23an emandako Aginduak, Goierriko Babes Bereziko Zona sortzen du eta helburuen artean, besteak beste, eskualdeko batzordea eratzea da.

5.- Iraunaldia.

Bai Foru Agindua (2005koa) eta baita ere “Elkarlan-akordioa” (2003koa), indarrean jarraitzen dute. Azken honen iraunaldia bi urtetakoa zen baina alderen batek salatu ezean, tazituki luzatzen dela adierazten da (ikus 5. akordioa).

6.- “Elkarlan akordioa” 40/2015 Legeari doitu beharra.

“Elkarlan-akordioa” indarrean jarraitzen badu ere, ez dator 40/2015 Legearekin bat eta moldatu egin beharko litzateke. Moldatze horrekin, Legeak aipatzen dituen hainbat xehetasun aurreikusteaz gain, tarifak eguneratzeko aurreikusitako prozedura ere aztertu daiteke, egokia ez dela irizten bada.

HAUSNARKETAK

Aurten arte, GOIEKI bitartekari modura jardun du AGITAX eta udalen artean, baina antza denez, inolako azterlan edo izapide berezirik egin gabe eta hori izan daiteke arazo edo betiko funtzionamenduan ez delako berririk izan edota batzordea ez delako eratu.

Foru Aldundiarekin gai honen inguruan harremanetan jarri ondoren jakin izan dugu, Gipuzkoan sortutako Babes Bereziko beste Zonetan, batzordeak biltzen direla bakarrik arazoren bat egon ezker.

Prozedura, berez, aurreko urteetakoa izan beharko litzateke onartutako “Elkarlan-akordioa” errespetatze aldera, baina GOIEKik azterlan bat egitekotan udal ordezkariekin eta taxisten elkartearekin harremanetan jarri beharko litzateke eta horrek eramaten gaitu aipatutako batzordea sortu beharra izatea.

BESTELAKOAK: “Hiri-tarifa”ren aplikazioa.

Auzo-taxien inguruan azkeneko Lurralde batzordean informazioa ematerakoan sortu zen zalantza izan zen “hiri-tarifa” delakoa aplikatu behar den taxi-zerbitzua landa auzoetara joan-etorria denean.

Baiezkoa esan zen. “Hiri-tarifa”, udalerrian aplikatzen dena delako.

Dena dela, AGITAXekin kontsultatu da eta baieztatu egin du esandakoa.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko seiak bi minutu gutxiagotan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.